**PROGRAMA**

3223 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

**ARDURADUNA**

47 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA

## HELBURUA

1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA, ETA PLANGINTZA, EGITUREN SENDOTZEA ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZAREN HOBEKUNTZA BULTZATZEA

2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA

3. KOORDINAZIOA BULTZATZEA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN

4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOEKIN JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNA LANTZEKO

## BETETZE MAILA

**1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA, ETA PLANGINTZA, EGITUREN SENDOTZEA ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZAREN HOBEKUNTZA BULTZATZEA**

Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak ohiko bilkura bat egin zuen maiatzaren 22an, araudiak eskatzen dituen txostenak eta dokumentuak onartzeko (EAEn emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako VII. Plana, Zifren Txostena, botere publikoen jarduera Memoria eta Emakunderen Memoria).

Eusko Legebiltzarrari txosten hauek helarazi dizkio: Berdintasunerako Legearen ebaluazioak, Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko txostena, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioaren emaitzak, eta Emakunderen, BEGIRA batzordearen eta sektore pribatuan sexu-diskriminazioko egoeretan dauden herritarrei arreta emateko zerbitzuaren jarduera-memoriak.

***PROGRAMA***

*3223 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*

***RESPONSABLE***

*47 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*

*DIRECTORA DE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*

## *OBJETIVO*

*1. PROMOVER LA APLICACIÓN DE LA LEY 4/2005 DE 18 DE FEBRERO PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES E IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN, EL FORTALECIMIENTO DE LAS ESTRUCTURAS Y LA MEJORA DE LA GOBERNANZA PARA LA IGUALDAD*

*2. EVALUAR LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

*3. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

*4. REALIZAR ACTUACIONES Y COLABORAR CON LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS PARA EL DESARROLLO DEL OBJETIVO DE IGUALDAD EN LAS POLÍTICAS PÚBLICAS*

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***1. PROMOVER LA APLICACIÓN DE LA LEY 4/2005 DE 18 DE FEBRERO PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES E IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN, EL FORTALECIMIENTO DE LAS ESTRUCTURAS Y LA MEJORA DE LA GOBERNANZA PARA LA IGUALDAD***

*El Consejo de Dirección de Emakunde ha realizado una sesión ordinaria el 22 de mayo para la aprobación de los informes y documentos requeridos por la normativa (VII Plan para la igualdad de mujeres y hombres en la CAE, Informe Cifras, Memoria de actuación de los poderes públicos y Memoria de Emakunde).*

*Se han remitido los siguientes informes al Parlamento Vasco: las evaluaciones de la Ley para la Igualdad, el informe de situación de las mujeres y los hombres en Euskadi, los resultados de la evaluación relativa al VI Plan para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE, las Memorias de actuación de Emakunde, de la Comisión BEGIRA y del Servicio de atención a la ciudadanía ante situaciones de discriminación por razón de sexo en el sector privado.*

Emakunderen zuzendaria hirutan agertu da Eusko Legebiltzarrean Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordearen aurrean, eta idazkari nagusia beste behin Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen aurrean.

*La Directora de Emakunde ha comparecido en tres ocasiones en el Parlamento Vasco ante la Comisión de Derechos Humanos e Igualdad y la Secretaria General una vez ante la Comisión de Hacienda y Presupuestos.*

Administrazio publikoetan berdintasun-politikak diseinatzen eta abian jartzen laguntzen duten azterlanak eta baliabideak sortu eta zabaltzeari dagokionez:

*En cuanto a la creación y difusión de estudios y recursos que apoyen el diseño y puesta en marcha de políticas de igualdad en las administraciones públicas:*

Berdintasunaren eta feminismoaren eremuan euskarazko terminologia lantzeko eta kontsultarako tresna bat sortu dugu.

*Se ha desarrollado el proyecto para trabajar la terminología en el ámbito de la igualdad y el feminismo en euskera y crear una herramienta de consulta.*

Azterlan hau egin dugu: «Sexismoa Aitaren eguneko eta Amaren eguneko publizitate-kanpainetan. Detektatzeko tresnak».

*Se ha realizado el estudio "Sexismo en las campañas de publicidad para el Día del Padre y el Día de la Madre. Herramienta para su detección".*

Azterlan hau egin dugu: «Emakumeek euskal tokiko eta eskualdeko hedabideetan duten presentziari buruzko azterketa, 2018».

*Se ha realizado el estudio "II. Análisis de la presencia de las mujeres en los medios de comunicación vascos locales y comarcales, 2018".*

Azterlan hau egin dugu: «Emakumeen aurkako indarkeriagatik hildako biktimei buruzko trataera informatiboari buruzko azterketa (2015-2017)».

*Se ha realizado el estudio "Análisis del tratamiento informativo sobre las víctimas mortales por violencia contra las mujeres (2015-2017)".*

Azterlan hau egin dugu: «BEGIRA publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordearen ebaluazioa (2013-2017)».

*Se ha realizado el estudio "Evaluación de la Comisión Asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación, BEGIRA (2013-2017)".*

Honako lan hauek argitaratu ditugu:

*Se han publicado los siguientes trabajos:*

Gida, paperekoa eta digitala: «Nola egin kirolarekin lotutako publizitatea genero-ikuspegitik».

*Guía en edición impresa y digital: "Cómo hacer publicidad vinculada a los deportes, desde la perspectiva de género".*

Gida, paperekoa eta digitala: «Nola landu kirolari buruzko informazioak genero-ikuspegitik».

*Guía en edición impresa y digital: "Cómo tratar las informaciones deportivas desde la perspectiva de género"*

Zenbait bideo prestatu, editatu eta zabaldu ditugu, gai hauei buruz: «Publizitate eta komunikazio ez sexistarako autoerregulaziorako kode deontologikoa Euskadin»; «Publizitate ez sexistarako dekalogoa»; «Komunikazio ez sexistarako dekalogoa»; «Umeentzako iragarkiak egiteko gomendioak»; «Hauteskunde-kanpainen informazio-trataeraren erabilera sexistak hautemateko eta saihesteko gomendioak».

*Se han elaborado, editado y difundido vídeos sobre: El código deontológico y de autorregulación para una publicidad y comunicación no sexistas en Euskadi"; "Decálogo para una publicidad no sexista"; "Decálogo para una comunicación no sexista"; "Recomendaciones para la elaboración de anuncios dirigidos al público infantil"; y, "Detectar y evitar usos sexistas en el tratamiento informativo de las campañas electorales".*

Izaskun Porres Garcíaren «Genero-indarkeriako delituen biktimen intimitaterako eskubidea. Biktimen anonimotasunerako eskubidea» txostenaren laburpena prestatu eta maketatu da eta 2019 hasieran argitaratzeko asmoa daukagu.

*Se ha preparado y maquetado el resumen del informe "Derecho a la intimidad de las víctimas de delitos de violencia de género. Derecho al anonimato de las víctimas", elaborado por Izaskun Porres García, cuya publicación se prevé para comienzos de 2019.*

Metodologia bat argitaratu dugu, emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostiko bat eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat egiteko, mikro enpresetan eta enpresa txikietan.

*Se ha publicado la metodología para la realización de un diagnóstico y plan para la igualdad de mujeres y hombres en micro y pequeñas empresas.*

Jaurlaritzak sustatzen duen araudiaren genero-inpaktuari dagokionez:

*En relación con la evaluación del impacto de género de la normativa que promueve el Gobierno:*

Guztira, 67 espediente jaso ditugu 2018an. 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan xedatutakoa egoki aplikatzen dela egiaztatzeko, 36 txosten egin ditugu, 22 ofizio salbuetsi, 4 errekerimendu eta 5 txosten 2019an egiteko geratu dira.

*El total de expedientes recibidos en 2018 ha sido de 67. Se han emitido 36 informes para verificar la correcta aplicación de lo dispuesto en los artículos 19 y 20 de la Ley 4/2005, 22 oficios exentos, 4 requerimientos y 5 han quedado pendientes para ser informados en 2019.*

Eskuragarri dagoen informazio guztia migratu eta irauli ondoren, elikatzen jarraitu da Emakunderen intranetean generoaren araberako eraginari buruzko espediente guztiak kontsultatzeko informatika-aplikazioa.

*Se ha seguido alimentando la aplicación informática que permite consultar todos los expedientes relativos a la evaluación de impacto en función del género, tras un proceso de migración y volcado de toda la información*

*disponible.*

Berdintasunerako Legearen 15.1 artikuluan aipatzen den EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana onartu eta editatu dugu. EAEn banatzean, Planarekin batera bertsio laburtu bat eman dugu hobeto ulertzeko, plana prestatzeko prozesuan egindako eskakizunari erantzuteko.

*Se ha aprobado y editado el VII Plan para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE a que se refiere el artículo 15.1 de la Ley para la igualdad. La distribución del mismo a nivel de la CAE, se ha acompañado de una versión resumida que facilita su comprensión, de acuerdo a la demanda realizada en el proceso de elaboración del plan.*

Emakunderen 2017ko plana ebaluatu dugu, eta aurreikusitako jardueren betetze-maila handia dela ikusi: ekintzen % 91 gauzatu dira, eta beste % 9 garabidean daude.

*Se ha evaluado el plan de Emakunde 2017, constatando el alto grado de cumplimiento de las actuaciones previstas (un 91% de las acciones han sido ejecutadas y otro 9% se encuentran en proceso de desarrollo).*

Emakunderen Berdintasunerako Plana prestatu dugu, XI. Legealdiari (2016-2020) dagokiona eta 2018ko eta 2019ko urteko plangintzak hartzen dituena. Guztira, 26 helburu estrategiko jasotzen ditu 2018rako (horietako lau lehentasunezkoak dira), eta 154 jarduketa bidez gauzatuko dira.

*Se ha elaborado el Plan para la Igualdad de Emakunde correspondiente a la XI Legislatura (2018-2011) y que comprende las planificaciones anuales de 2018 y 2019. Se contemplan un total de 26 objetivos estratégicos para 2018 (4 de ellos considerados prioritarios) que se materializaran a través de 154 actuaciones.*

Eusko Jaurlaritzako sailen XI. legegintzako 8 planen inguruko txostenak egin ditugu.

*Se han informado 8 planes de igualdad para la XI legislatura de los Departamentos del Gobierno Vasco.*

Foru- eta toki-administrazioari dagokienez, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko plangintza bultzatu eta koordinatzeko, honako jarduera hauek egin ditugu:

*Para el impulso y la coordinación de la planificación en materia de igualdad de mujeres y hombres por lo que respecta a la administración foral y local se han realizado las siguientes actuaciones:*

EAEko udalerrientzako, koadrilentzako eta mankomunitateentzako diru-laguntzen deialdia kudeatu dugu, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasunerako planak eta plan sektorialak, baita indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta-protokoloak ere, sortu eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ahalbidetzeko. Urteko deialdia da; 64 eskaera jaso eta 33 laguntza eman ditugu.

*Se ha gestionado la convocatoria para la concesión de subvenciones a municipios, cuadrillas y mancomunidades de la CAE destinadas a proporcionar la asistencia técnica para la realización de diagnósticos y/o elaboración y evaluación de planes para la igualdad de mujeres y hombres, incluidos protocolos de atención a mujeres víctimas de violencia. Se trata de una convocatoria anual en la que se han recibido 64 solicitudes y se han concedido 33 ayudas.*

Udal batzuei aholkuak eman dizkiegu, berdintasun-planak egiteko. Halaber, aholkularitza eman diegu materialak sortu eta berrikusteko hasitako prozesuan.

*Se ha asesorado a varios ayuntamientos en el proceso iniciado para la elaboración de sus planes para la igualdad. Asimismo se ha asesorado en la elaboración y revisión de materiales.*

Toki-erakundeen 16 plani buruzko txostenak egin ditugu.

*Se han informado 16 planes de entidades locales.*

Emakundek buruzagitza- eta koordinazio-lanak egiten ditu emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduketa-protokoloak homogeneizatzeko. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua bultzatu du, hortxe ezartzen baita protokolo horiek garatu beharra. Ildo horretan, Institutuak protokoloen berri ematen du, horiek sustatzen dituzten toki-administrazioek erreferentzia-esparru bat izan dezaten, toki-administrazioek hala eskatzen badute.

*Emakunde lidera y coordina las actuaciones referentes al proceso de homogeneización de los protocolos de actuación en materia de violencia contra las mujeres, impulsando con ello el cumplimiento del artículo 62 de la Ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres que establece la adopción de estos protocolos. En esta línea el Instituto informa los protocolos para que las administraciones locales que los impulsen tengan un marco de referencia, siempre y cuando las administraciones locales así lo demanden.*

Berdingune ataria kudeatu dugu EAEn erreferentziako atari bihur dadin berdintasunarekin zerikusia duen guztian; izan ere, bertan bildu dira gure erkidegoan arlo horretan dauden baliabide, programa eta zerbitzu publiko guztiak.

*Se ha gestionado el portal Berdingune para convertirlo en el portal de referencia de la CAE con relación a la igualdad, ya que aglutina los diferentes recursos, programas y servicios de carácter público existentes en esta materia en nuestra comunidad.*

Emakunderen webguneko «Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmen publikoetan berdintasuna» atala eguneratu dugu.

*Se ha actualizado la sección de la web de Emakunde sobre "Igualdad en contratos y subvenciones".*

7 txosten eta azterlan juridiko prestatu ditugu berdintasunaren arloko araudira egokitzeari buruz, zenbait gairi dagokienez (kontratazioan berdintasun-klausulak

*Se han elaborado 7 informes y estudios jurídicos sobre el ajuste a la normativa en materia de igualdad de temas diversos (inclusión de cláusulas de igualdad en la*

txertatzea, berdintasun arloko prestakuntzaren baldintzak lanpostuetan, genero-indarkeriaren biktimak artatzeko protokoloaren edukiaren egokitasuna, antolamenduari buruzko kontuak, etab.).

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntzari dagokionez, bi mailatan lan egin dugu; alde batetik, prestakuntzako ikastaroak zuzenean antolatu ditugu eta, bestetik, beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun dugu emakumeen eta gizonen berdintasunarekin loturiko prestakuntza-jardueretan.

EHUrekin elkarlanean, «Haurduntza subrogatua edo alokairuko sabelak? Emakumeen gorputzen merkantilizazioaren mugak» ikastaroa antolatu dugu EHUren 2018ko udako ikastaroetan, Donostian (Miramar Jauregia).

EHUren «Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko online masterrarekin» elkarlanean aritu gara (2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteak) irakaskuntzari lagunduz eta dirulaguntza izenduna emanez.

Lankidetzako hitzarmen bat egin dugu EHUren Berdintasunerako Zuzendaritzarekin eta, horren esparruan, 4 ikastaro egin ditugu emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz eta beste 4 gizonei, berdintasunari eta maskulinitateei buruz.

2008-2018 aldirako Berdintasuneko Prestakuntza Planaren esparruan, HAEErekin lankidetzan aritu gara berdintasunari buruzko zeharkako prestakuntza diseinatzen, bai eta «Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko oinarrizko ikastaroa» ematen ere; azken horrek hiru edizio izan ditu.

Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko masterra (Deustuko Unibertsitatea) egiteko 14 laguntza eman ditugu.

Generoari eta berdintasun-politikei buruzko ikerketa eta azterketa sustatu ditugu hauen bitartez:

Hiru beka, generoari eta emakumeen eta gizonen berdintasunari lotutako zenbait alderdi eta faktore aztertzen dituzten ikerketak egiteko.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ikerlanen VI. lehiaketara deitu dugu.

Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta udalen sail eta organismoekin eta beste euskal erakunde publiko batzuekin egindako jarduerei dagokienez, hauek nabarmendu behar ditugu:

Lehendakaritzarekin elkarlanean aritu gara Bakea eta Elkarbizitza Planaren segimendu-batzordean, eta arlo horretan emandako laguntzak baloratzeko batzordeetan parte hartu dugu.

Eusko Legebiltzarrarekin elkarlanean aritu gara, emakumeen eta gizonen berdintasunerako lehenengo plana egiteko.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritzarekin, Basque Country Estrategiaren garapenean jardun dugu lankidetzan.

Euskadin haurren obesitatearen prebentzio-estrategia

*contratación, requisitos de formación en igualdad en puestos de trabajo, pertinencia del contenido de protocolo de atención a víctimas de violencia de género, cuestiones de organizativas, …).*

*Respecto a la labor de formación en materia de igualdad de mujeres y hombres, se ha trabajado en dos niveles; por un lado, se han organizado directamente cursos de formación y, por otro lado, se ha colaborado con otras entidades en actividades de formación en relación con la igualdad de mujeres y hombres.*

*En colaboración con la UPV/EHU se ha organizado el Curso "¿Gestación subrogada o vientres de alquiler? Los límites de la mercantilización de los cuerpos de las mujeres en los cursos de verano de la UPV/EHU 2018 en Donostia-San Sebastián (Palacio Miramar).*

*Se ha colaborado con el "Máster on line en Igualdad de Mujeres y Hombres" (curso 2018-2019 y 2019-2020) de la UPV/EHU, a través del apoyo en la docencia, la concesión de una subvención nominativa.*

*Se ha suscrito un convenio en colaboración con la Dirección para la Igualdad de la UPV/EHU, en cuyo marco, se han realizado 4 cursos online sobre igualdad de mujeres y hombres, y otros 4 sobre hombres, igualdad y masculinidades.*

*En el marco del Plan de Formación en Igualdad 2008-2018, se ha colaborado con el IVAP en el diseño de la formación transversal sobre igualdad, así como en la docencia del "Curso básico de formación sobre igualdad de mujeres y hombres", del que se han hecho tres ediciones.*

*Se han concedido 14 ayudas para la realización del Máster en intervención en violencia contra las mujeres de la Universidad de Deusto.*

*Se ha promovido la investigación y el estudio sobre género y políticas de igualdad a través de:*

*La concesión de tres becas de investigación que abordan el análisis de diversos aspectos y factores relativos al género y la igualdad de mujeres y hombres.*

*La convocatoria del VI certamen de trabajos de investigación en materia de igualdad de mujeres y hombres.*

*En cuanto a las actuaciones realizadas con los distintos departamentos y organismos del Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y los Ayuntamientos y otras instituciones públicas vascas, cabe destacar las siguientes colaboraciones:*

*Con Lehendakaritza se ha participado en la Comisión de seguimiento del Plan de Paz y Convivencia y en las comisiones de valoración de las ayudas concedidas en dicho ámbito.*

*Se ha colaborado con el Parlamento Vasco para la elaboración de su primer plan para la igualdad de mujeres y hombres.*

*Con la Secretaría de Acción Exterior se ha colaborado para el desarrollo de la Estrategia Basque Country.*

*Con el Departamento de Salud se ha colaborado en el*

garatzeko lan egin da Osasun Sailarekin.

*desarrollo de la Estrategia de prevención de la obesidad infantil en Euskadi.*

Lankidetzako Euskal Agentziarekin, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan parte hartu dugu, baita agentziako genero-ekitatearen aldeko prozesu batean ere, diagnostiko bat egitea eta genero-ekitatearen aldeko ekintza-plan estrategikoa harturik oinarri.

*Con la Agencia Vasca de Cooperación, se ha participado en el Consejo Vasco de Cooperación al Desarrollo, así como en un proceso pro-equidad de género de la propia agencia, basado en la realización de un diagnóstico y un plan de acción estratégico pro-equidad de género.*

Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritu gara IV. Gazte Planaren barruko ekintzak prestatzen eta planifikatzen.

*Con el Departamento de Educación se ha colaborado en la elaboración y planificación de acciones en el marco del IV Gazte Plana.*

Halaber, Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko II. Gida Plana prestatzen parte hartu dugu.

*Asimismo, se ha participado en la elaboración del II Plan Director para la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo.*

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan aritu gara genero-ikuspegia txerta dezan bere funtzionamenduan, horretarako dirulaguntza izendun bat eskainita, baita aldizkako koordinazioa eta aholkularitza ere.

*Con el Consejo Vasco de la Juventud, se ha colaborado para integrar la perspectiva de género en su funcionamiento a través de la dotación de una subvención nominativa para tal fin y a través de coordinación y asesoramientos puntuales.*

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Kiroleko Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu gara, kirolaren eremuko profesionalei zuzendutako jardunaldi baten antolaketan parte hartuz, kirolaren kudeaketan eta praktikan berdintasunak ematen dituen era askotako onurei buruz hausnartzeko.

*En colaboración con la Dirección de Deportes del Departamento de Cultura y Política Lingüística se ha participado en la organización de una jornada dirigida a profesionales del ámbito deportivo para reflexionar sobre los diversos beneficios que aporta incorporar la igualdad en la gestión y en la práctica deportiva.*

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin lankidetzan, honako hauetan hartu dugu parte: Adinekoen Kontseilu Sektorialean, Familien Euskal Kontseiluan, Immigraziorako Foroan eta Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluan.

*Con el Departamento de Empleo y Políticas Sociales se ha tomado parte en el Consejo Sectorial de Personas Mayores, en el Consejo Vasco de Familia, en el Foro de Inmigración y en el Consejo para la Promoción Integral y Participación Social del Pueblo Gitano.*

Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzarekin eta Ekonomia Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu gara Europako Inbertsio Funtsetako programa operatiboak garatzen.

*Con la Dirección de Planificación e Innovación en el Empleo y con la Dirección de Economía en el desarrollo de los programas operativos de los Fondos Europeos de Inversión.*

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzaren Lan Ikuskaritza eta Gizarte Segurantzako Zuzendariordetzaren artean sinatutako lankidetza-hitzarmenaren esparruan, euskal autonomia-erkidegoko enpresetan emakumeen eta gizonen artean berdintasuna bermatzen dela zaintzeko, hari jarraipena egiteko batzordea bildu da eta bi goizeko prestakuntza bat egin dugu lan-ikuskariei soldata-aldeari eta generoari buruzko prestakuntza emateko.

*En el marco del Convenio de colaboración entre Emakunde-Instituto Vasco de la mujer y la subdirección de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social de la Dirección de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco para la vigilancia permanente en las empresas de la comunidad autónoma de Euskadi de la igualdad efectiva entre mujeres y hombres, ha habido una reunión de la comisión de seguimiento del mismo y se ha llevado a cabo una formación de dos mañanas sobre brecha salarial y género dirigida a inspectoras e inspectores de trabajo, entre otras actuaciones.*

Osalan - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen eta Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen arteko hitzarmenaren esparruan, lanerako eta koordinaziorako hainbat bilera eta informazio-trukerako jarduera egin ditugu, eta laguntza eman dugu 2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Estrategiaren bitarteko ebaluaketan, besteak beste. Era berean, laneko osasunari buruzko jardunaldi bat antolatzen lagundu dugu, non Lan Ikuskaritzak ere parte hartu duen.

*En el marco del Convenio entre Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales y Emakunde-Instituto Vasco de la mujer, se han desarrollado varías reuniones de trabajo, coordinación y actuaciones de intercambio de información y se ha colaborado en la evaluación intermedia de la Estrategia Vasca de Seguridad y Salud en el trabajo 2015-2020, entre otras cuestiones. Así mismo se ha colaborado en la organización de una jornada sobre salud laboral en la que también ha participado Inspección de Trabajo.*

EUSKALIT-Kudeaketa Aurreratuarekin, lankidetza-hitzarmenaren esparruan, zenbait jarduketa garatu ditugu hura betetzeko; besteak beste, kudeaketan berdintasun-

*Con EUSKALIT-Gestión Avanzada en el marco del convenio de colaboración se han desarrollado distintas actuaciones conjuntas para darle cumplimiento, entre ellas,*

jardunbideak identifikatzea eta horien aukeraketa bat aurkeztea elkarrekin antolatutako jardunaldi batean, Euskaliten Kudeaketa Aurreratuko Biltzarrean. Halaber, Emakunde Q-Epea sarean sartu da, horretarako egin beharreko izapideak egin ondoren.

*la identificación de prácticas de igualdad en la gestión y la presentación de una selección de las mismas en una jornada conjunta organizada en el Congreso de Gestión Avanzada de Euskalit. Asimismo, Emakunde se ha incorporado a la red Q-Epea, una vez realizados los trámites necesarios a tal fin.*

9 prestakuntza-saio egin ditugu izapide elektronikoari buruz, emakumeen elkarteentzat.

*Se ha desarrollado 9 sesiones de formación sobre tramitación electrónica dirigida a las asociaciones de mujeres.*

Ogasun eta Finantza Sailarekin elkarlanean aritu gara EAEko aurrekontuetan genero-ikuspegia sartzeko prozesua abiarazteko.

*Con el Departamento de Hacienda y Finanzas se ha colaborado para la puesta de marcha de un proceso para integración de la perspectiva de género en los presupuestos de la CAE.*

Eustatekin elkarlanean jarraitu dugu genero-berdintasunaren Europako indizea kalkulatzeko. Era berean, eta Euskal Estatistika Kontseiluaren bitartez, 2018-2022 aldiko Euskal Estatistika Plana egiteko lanetan parte hartu dugu.

*Con Eustat se ha continuado con la colaboración para el cálculo del índice europeo de igualdad de género. Asimismo, y a través del Consejo Vasco de Estadística, se ha participado en la elaboración del Plan Vasco de Estadística 2018-2022.*

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren jardunaldi batean parte hartu dugu, Osasun Publikoko programetan genero-ikuspegia zeharka txertatzeari buruzkoan, «Berdintasunaren arloko Legegintza Esparrua» hitzaldiaren bidez.

*Se ha participado en una jornada del Departamento de Salud del Gobierno Vasco sobre la transversalización de la perspectiva de género en los programas de Salud Pública mediante la ponencia "Marco Legislativo en materia de Igualdad".*

Osakidetzarekin elkarlanean aritu gara diagnostikoa eta berdintasunerako barne- eta kanpo-plana egiteko.

*Se ha colaborado con Osakidetza para realizar el diagnóstico y el plan para la igualdad interno y externo.*

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritzarekin lankidetzan aritu gara, Emakume Nekazarien Estatutuaren Jarraipen Batzordean parte hartuta.

*Se ha colaborado con la Dirección de Agricultura y Ganadería del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco a través de la participación en la Comisión de Seguimiento del Estatuto de las Mujeres Agricultoras.*

EHUko Zuzenbide Fakultateko Klinika Juridikoarekin lankidetzan jarraitzen dugu, berdintasunerako eskubideak defendatzeko Emakunderen Arloak egiten dituen esku-hartzeen eta ematen dituen benetako adibideen bitartez.

*Se sigue colaborando en la Clínica Jurídica de la Facultad de Derecho de la UPV/EHU mediante intervenciones y la aportación de casos reales por parte del Área para la defensa de los derechos de igualdad de Emakunde.*

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin elkarlanean, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoaren esparruan, Aurrerabideren 2016-2018 aldirako Sendotze eta Hobetze Plana gauzatzen eta horri jarraipena egiten jarraitu dugu. Gauzatutako ekintzen artean, hauek nabarmentzen dira: DACIMA eta Euskalitekin egindako baterako ebaluaketa, barne-komunikazioko plana eta harrera-plana gauzatzea eta iradokizunen postontzia kudeatzea. Era berean, Emakunde EAEko Administrazio Orokorraren eta administrazio instituzionalaren kide anitzeko organoak Ebaluatzeko eta Hobetzeko Proiektuan parte hartzen ari da; Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza da organo horien buru.

*En colaboración con el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, en el marco del Plan Estratégico de Gobernanza e Innovación Pública, se ha continuado con la ejecución y seguimiento del Plan de Consolidación y Mejora de Aurrerabide 2016-2018. Entre las acciones desarrolladas cabe destacar la evaluación conjunta realizada con la DACIMA y Euskalit, el desarrollo del Plan de Comunicación Interna y del Plan de Acogida y la gestión del buzón de sugerencias. Así mismo, Emakunde está participando en el proyecto de Evaluación y Mejora de los órganos colegiados de la Administración General de la CAE y su administración institucional, liderados desde la Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.*

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin lankidetzan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusiaren esparruan, Emakunderi dagozkion plan estrategikoa eta kudeaketa-plana prestatu eta gauzatu ditugu. Egindako jardueren artean, nabarmentzekoa da Euskara Batzordea sortu, euskararen ahozko erabileraren neurketa egin, sentikortzeko eta prestakuntzako zenbait ekintza gauzatu eta proiektu hauetan parte hartu dugula: feminismoari eta berdintasunari buruzko hiztegi terminologikoa, euskal administrazio publikoetako berdintasun-teknikarien artean

*En colaboración con el Departamento Cultura y Política Lingüística, en el marco del Plan General de Normalización del Uso de Euskera, se han elaborado y ejecutado el plan estratégico y plan de gestión correspondiente a Emakunde. Entre las actuaciones desarrolladas cabe destacar, la creación de Euskara Batzordea, la realización de una medición del uso oral del euskara, acciones de sensibilización y formación y la participación en los siguientes proyectos: diccionario terminológico sobre feminismo e igualdad, proyecto para el fomento del uso del*

euskara erabil dadin sustatzea, Euskaraldia eta Euskalitek antolatutako tailer bat, kudeaketa aurreratuari eta hizkuntza-kudeaketari buruz.

*euskara entre el personal técnico de igualdad de las administraciones públicas vascas, Euskaraldia y taller organizado por Euskalit sobre gestión avanzada y gestión lingüística.*

Barneko prestakuntza-planaren esparruan prestakuntza-jarduera bat garatu dugu, Emakundeko langile guztientzat.

*En el marco del plan de formación interna se ha desarrollado una actividad formativa dirigida a todo el personal de Emakunde.*

Dokumentazio zentroak ohiko kudeaketa eta mantentze-lanak egin ditu: funtsak eskuratu, katalogatu eta indexatu, aldizkarien harpidetzak kontrolatu eta horietatik artikuluak hustu, etab. Horiez gain, zentroak eskaintzen dituen zerbitzuetako erabiltzaileen eskaerei erantzun die.

*El Centro de Documentación ha realizado las labores habituales de gestión y mantenimiento (adquisición de fondos, catalogación e indización, control de las suscripciones a revistas y vaciado de artículos de las mismas, etc.) y las derivadas de la atención a las personas usuarias de los diferentes servicios que el Centro ofrece.*

Orotara 400 dokumentu eskuratu eta/edo katalogatu dira, batez ere idatzizko dokumentuak, baina baita ikus-entzunezkoak ere.

*Se han adquirido y/o catalogado más de 400 documentos, sobre todo documentos escritos pero también audiovisuales.*

Informazioa eta bibliografiari buruzko aholkularitza emateko, «nahierarako» zerrenda bibliografikoak eta bideografikoak prestatzeko eta eskatutako gaiei buruzko prentsa-oharrak aukeratzeko eskariei dagokienez, posta elektronikoz nahiz telefonoz jasotako 1.000 eskaerari erantzun diogu gutxi gorabehera, baita aretoan egindako kontsultei ere, eta 250 liburu eta bideo mailegatu ditugu.

*En respuesta a las demandas de información, asesoramiento bibliográfico y elaboración de listados bibliográficos y videográficos "a la carta", selección de noticias de prensa sobre temas solicitados. Se han atendido 1.000 peticiones aproximadamente, realizadas tanto por correo electrónico como por teléfono, además de las consultas en sala y se han realizado 250 préstamos de libros y videos.*

Internet bidez, dokumentu-funtsean jasotako lan kopuru nabarmena (25.100 erregistro ABSYS datu-basean) jendearen esku jartzeko zerbitzuari eutsi diogu.

*Se ha mantenido el servicio de puesta a disposición del público, a través de Internet, de un número importante de obras de su fondo documenta (25.100 registros en la base de ABSYS).*

Dokumentazio Zentroak, Espainiako Emakumeen Liburutegien eta Dokumentazio Zentroen Sareko kidea den aldetik, sare horretako bestelako zentroen bitartez eginiko eskaerei ere erantzun die, eta sare horretako kideek urtero egiten dituzten topaketetan parte hartu du.

*El Centro de Documentación, como centro integrante de la Red de Bibliotecas y Centros de Documentación de mujeres del estado español, ha atendido a las diversas peticiones realizadas a través de los otros centros integrantes de dicha Red, y ha asistido a los Encuentros que se celebran anualmente entre las integrantes de dicha Red.*

Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroarekin elkarlanean aritu gara jakintza zabaltzeko dirulaguntza izendun baten bitartez.

*Se ha colaborado con el Centro de Documentación de Mujeres Maite Albiz a través de una subvención nominativa para la difusión de conocimiento.*

## 2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA

## *2. EVALUAR LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

«EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak, 2018» urteko txostena egin dugu.

*Se ha realizado el Informe anual Cifras sobre la situación de las mujeres y los hombres en la CAE, 2018.*

Berdintasunerako VI. Plana gauzatuz botere publikoek egindako jardueren jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez:

*Con relación al seguimiento y evaluación de la actuación de los poderes públicos en ejecución del VI Plan para la Igualdad:*

VI. Planaren garapenean inplikatuta dauden erakunde guztiek 2017an gauzatutako jarduerei buruzko informazioa bildu dugu. Guztira 130 erakundek hartu dute parte.

*Se ha procedido a la recogida de información sobre las actuaciones llevadas a cabo en 2017 por el conjunto de los poderes públicos implicados en el desarrollo del VI Plan en el que han participado un total de 130 entidades.*

Botere publikoen jarduera-memoria egin da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana gauzatuz, 2017. Urtean.

*Se ha elaborado la Memoria de actuación de los poderes públicos en ejecución del VI Plan para la Igualdad de mujeres y hombres correspondiente al año 2017.*

Eusko Jaurlaritzako sailen jardunaren jarraipen-dokumentua ere egin dugu 2017ko ekitaldiari dagokionez.

*Se ha realizado asimismo el documento de seguimiento de la actuación de los departamentos del Gobierno Vasco,*

*correspondiente al ejercicio 2017.*

Etxean tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei arreta hobea emateko Erakundeen Arteko II. Akordioaren jarraipen-txostena eta betetze mailari buruzko ebaluazio-txostena egin ditugu.

*Se ha realizado el informe de seguimiento y evaluación anual del nivel de cumplimiento de los contenidos del II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual.*

Emakumeen aurkako indarkeriaren ezagutzan aurrera egiten jarraitu dugu eta txosten batzuk argitaratu ditugu EAEn emakumeen aurkako indarkeriak duen hedadurari buruz. Halaber, lan egiten jarraitu dugu datuak jarduera-esparruaren arabera biltzeko modua homogeneizatzeko. Datu-bilketa horren ondorioz, emakumeen aurkako indarkerien biktimei zuzendutako programen eta zerbitzuen irismenari eta eraginkortasunari buruzko txostenak egin ditugu.

*Se ha continuado avanzando en el conocimiento de la violencia contra las mujeres, publicándose informes sobre la dimensión de la violencia contra las mujeres en la CAPV. Así mismo, se continúa trabajando en la homogeneización de la recogida de datos por ámbitos de actuación. Fruto de esta recogida de datos se lleva a cabo el informe sobre el alcance y la eficacia de los programas y servicios dirigidos a las víctimas de la violencia contra las mujeres.*

Baliabide Mapa bat egiten ari gara, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeko dauden zerbitzu guztiak azkar eta erraz geolokalizatzeko. Bilaketa herrien eta arreta-esparruen arabera ere egin ahal izango da.

*Se está elaborando un Mapa de Recursos que permitirá geolocalizar todos los servicios disponibles para la atención de las mujeres víctimas de violencia contra las mujeres de una manera rápida y sencilla. La búsqueda también será posible por municipios y ámbitos de atención.*

2017. urteko jarduerari buruzko memoriak egin eta zabaldu ditugu: Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearena, Begira - Publizitate eta komunikabide ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordearena, eta Berdintasun eskubideak defendatzeko arloarena.

*Se han elaborado y difundido las memorias anuales de actividad para el año 2017 de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer ,Comisión Asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación Begira y Área para la defensa de los derechos de igualdad.*

### 3. KOORDINAZIOA BULTZATZEA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN

### 3. *IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeak ohiko bilkura egin zuen, non, besteak beste, EAEko berdintasun-politiketan kalitate-estandarrak ezartzeko Hitzarmen bat onartu eta Emakundek Europar Batasunaren berdintasun-indizeari buruz egindako dokumentuaren berri eman zen.

*La Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres celebró una sesión ordinaria en la que, entre otras cuestiones, se aprobó un Acuerdo sobre el establecimiento de estándares de calidad en las políticas de igualdad de la CAE y se informó sobre el documento elaborado por Emakunde con relación al Índice de Igualdad de la Unión Europea.*

Batzordearen baitan, lantalde tekniko hauek sustatu eta koordinatu dira:

a) Hitzarmenetako, diru-laguntzetako eta sektore publikoko kontratuetako berdintasun-neurriei buruzko lantalde teknikoa: bilera bat.

b) Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankuari buruzko lantalde teknikoa: 2 bilera.

c) Berdintasun-politiketan gutxieneko kalitate estandarrak ezartzeko eta erakundearteko koordinazioa hobetzeko lantalde teknikoa: 4 bilera.

*En el marco de la comisión, se han impulsado y coordinado los siguientes grupos técnicos:*

*a) GTT sobre medidas de igualdad en los convenios, subvenciones y contratos del sector público: 1 reunión.*

*b) GTT sobre el Banco de Buenas Prácticas en Igualdad: 2 reuniones.*

*c) GTT para el establecimiento de estándares mínimos de calidad de las políticas de igualdad y para la mejora de la coordinación interinstitucional: 4 reuniones.*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak ohiko bilkura egin zuen, zeinetan honako hauek aurkeztu genituen, besteak beste: Eusko Jaurlaritzak 2016rako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz egindako jarraipen-txostena, sail bakoitzak eta Emakundek XI. Legealdirako dituzten lehentasunak eta Europar Batasunaren berdintasun-indizea. Gainera, Sailarteko Talde Teknikoak egindako lana eta lantalde horrek Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-politikak hobetzeko egindako proposamen bat azaldu

*La Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres celebró una sesión ordinaria, en la que entre otras cuestiones, se presentaron el informe de seguimiento de la actividad del Gobierno Vasco en el ámbito de la igualdad de mujeres y hombres relativo a 2016, las prioridades para la XI. legislatura por parte de cada departamento y de Emakunde y el Índice de Igualdad de la Unión Europea. Además, se explicó el trabajo desarrollado por el Grupo Técnico Interdepartamental y una propuesta de éste para fortalecer las políticas de*

genituen.

Batzordeari laguntzeko Sailarteko Talde Teknikoa 4 aldiz bildu da.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko EAEko II. Erakundearteko hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak 2018ko ohiko bilkurari dagokion bilera egin du.

Horren esparruan, Sailarteko Talde Teknikoaren lana sustatu eta dinamizatu dugu, eta lantalde horrek 2 bilera egin ditu, zeinetan dibertsitate funtzionala izanik emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeak hobeto artatzeari buruzko lanarekin jarraitu duen, adostutako dokumentu bat egiteko, profesionalei desgaitasuna duten biktimak hobeto artatzen laguntze aldera. Halaber, Erakundearteko III. Akordioan lan egiten hastea proposatu dugu, estatuko, autonomia-erkidegoko eta nazioarteko arau-aldaketetara egokitzeko.

Informazio Sistemen Taldeak lan-bilera bat egin du. 2018ko eginkizun nagusia erakunde guztietan datuak biltzen jarraitzea izan da. Horren ondorioz, bi txosten egin dira: bat arretaren irismenari buruz eta bestea Baliabide Mapari buruz. Azken hori Baliabide Mapa interaktiboaren oinarria izan da.

Euskal Autonomia Erkidegoko zein beste erkidego batzuetako profesionalei, erakundeei eta instituzioei emakumeen aurkako indarkeriaren arloko aholkularitza eman diegu.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arretaren kalitatearen nazioarteko estandarrei buruz NBEk jarduera-esparru guztietan gauzatzen duen programa koordinatu dugu. 2018an, hausnartzeko eta ondorioak azaltzeko 3 jardunaldi antolatu ditugu, poliziaren (63 parte-hartzaile), gizarte-zerbitzuen (70 parte-hartzaile) eta osasunaren (88 parte-hartzaile) arloei buruz.

Eusko Jaurlaritzaren Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordeari aholku eman diogu, iragarki instituzionaletan genero-ikuspegia txertatzeari buruz.

BEGIRA, publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordeak urteko ohiko bi bilkurak egin ditu. Horien barruan, proposamenak kontrastatu eta ekarpenak jasotzeaz gain, erabakiak hartu zituzten abian jarritako txosten eta azterlanei, kode deontologikoa ezartzeko prozesuari, bidean dauden kexa-espedienteei, Begirarako urteko lan-planari eta bere urteko memoriari zein batzordearen beraren difusioari dagokienez.

Online plataforma kudeatu eta dinamizatu dugu Begirako langileen elkarlanerako.

Aholku Batzordeak, Emakunderen eta emakumeen elkarteen artean ezarritako komunikazio-bideak, ohiko bilera bat egin du, bai eta lurralde arteko hiru bilera ere.

*igualdad en el Gobierno Vasco.*

*El Grupo Técnico Interdepartamental (GTI) de apoyo a la Comisión se ha 4 reunido en 4 ocasiones.*

*La Comisión de Seguimiento del II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual de la CAE, ha celebrado la reunión correspondiente a la sesión ordinaria de 2018.*

*En el marco de la misma, se ha impulsado y dinamizado el trabajo del GTI, Grupo Técnico Interinstitucional, que ha celebrado 2 reuniones en las que: se ha continuado el trabajo relacionado con la mejora de la atención a las mujeres con diversidad funcional víctimas de violencia de contra las mujeres con el fin de realizar un documento consensuado que ayude a los profesionales a mejorar la atención de las víctimas con discapacidad. Así mismo, se ha propuesto comenzar a trabajar sobre el III Acuerdo Interinstitucional con el fin de adaptarse tanto a los cambios normativos nacionales, autonómicos e internacionales.*

*El GSI, Grupo de Sistemas de Información, ha realizado una reunión de trabajo. El principal cometido de este año 2018 ha sido continuar con la recogida de datos de todas las instituciones. Como resultado, se han realizado dos informes: uno sobre el alcance de la atención y otro sobre el Mapa de Recursos. Este último ha sido la base para elaborar el Mapa de Recursos interactivo.*

*Se ha asesorado a profesionales, entidades e instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como de otras comunidades, en materia de violencia contra las mujeres.*

*Se ha coordinado el programa de la ONU sobre Estándares internacionales de calidad en la atención a víctimas de la violencia contra las mujeres, desarrollado en los diversos ámbitos de actuación. Durante 2018 se han organizado 3 jornadas de reflexión y exposición de conclusiones relativas a los ámbitos de policía (63 participantes), servicios sociales (70 participantes) y salud (88 participantes).*

*Se ha asesorado a la Comisión Interdepartamental de Publicidad del Gobierno Vasco en relación a la inclusión de perspectiva de género en los anuncios institucionales.*

*La Comisión asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación/Begira ha celebrado sus dos reuniones ordinarias anuales. En el marco de las mismas, se contrastaron propuestas, se recogieron aportaciones y se tomaron acuerdos relativos a los informes y estudios puestos en marcha, al proceso de implantación del código deontológico, a los expedientes de quejas en curso, al plan anual de trabajo para Begira y su memoria anual y a la difusión de la propia comisión.*

*Se ha gestionado y dinamizado la plataforma on-line para el trabajo colaborativo del personal de Begira.*

*La Comisión Consultiva, cauce de comunicación establecido entre Emakunde y las asociaciones de mujeres, ha llevado a cabo una reunión ordinaria, así como tres reuniones interterritoriales.*

Berritu egin da Emakundek eta Eudelek 2005ean sinatu zuten lankidetza-hitzarmena, Berdinsarea-Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskadiko Udalen Sarea abian jartzeko eta finantzatzekoa.

Sarearen baitan eratutako batzordeetan eta lantaldeetan parte hartu dugu, eta nabarmentzekoa da zer-nolako elkarlana gauzatu den emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, bai eta genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioak toki-mailan aplika daitezela sustatzeko ere, barne hartuta «Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa toki-erakundeetan ezartzeko prozesuaren eta ezarpenerako tresnen azalpen-gida» dokumentuaren prestakuntza eta aurkezpena.

Eudelekin lankidetza-hitzarmena berritu dugu populazio txikieneko udalerrientzako dinamizazio- eta aholkularitza-zerbitzua bultzatu eta finantzatzeko, eta jardueren gauzatze-mailaren jarraipena egin dugu.

Eudeli dirulaguntza izenduna eman diogu, Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluko Berdintasun Batzordea kudeatzen laguntzeko, eta Eudelek eta aipatutako batzordeak Bilbon antolatutako Berdintasunari, aniztasunari eta inklusioari buruzko Nazioarteko Biltzarra antolatzen parte hartu dugu.

Nazioarteko lankidetzaren esparruan hainbat jarduera egin ditugu:

Dirulaguntza eman dugu indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eta neskentzako oinarrizko zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Programa Bateratu Globala garatzeko. Aipatutako programa bateratu globalari dagokionez, 2018an hiru berariazko jardunaldi egin ditugu orain arte segurtasunaren eta gizarte-gaien arloan egindako lanari buruz.

Munduko Nekazaritza Foruarekin lankidetzan eta horri laguntza ematen jarraitu dugu, Familia Nekazaritzako Munduko VI. Biltzarra antolatzeko lanetan, Eusko Jaurlaritzak eta erakunde horrek egindako esparru-akordioaren barruan.

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzarekin lankidetzan eta Eusko Legebiltzarraren ordezkaritza batekin batera, NBEko Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen (CSW62) 62. bileran parte hartu dugu. CSW62ren esparruan programatutako jarduera batzuetan parte hartu genuen, eta hainbat bileratan izen ginen: John Garamendi senatari demokratarekin, IknowPolitics proiektuaren arduradunekin, Nordic Forum-en ordezkariekin, Frantziako Berdintasun Kontseiluko ordezkariekin, Maltako Berdintasun Ministerioarekin eta The Global Alliance for Media and Gender (GAMAG) mugimenduko arduradunekin; halaber, aldebiko bilera orokorretan izan gara, NBE Emakumeak eta UNFPA-ren artean elkarlanean nola aritu aztertzeko. Horretaz gainera, goi-mailako ekitaldi batean parte hartu genuen, Programan parte hartu zuten gainerako herrialdeekin batera, indarkeriaren biktima izan diren emakume eta neskatilentzako funtsezko zerbitzuei buruz aritzeko, NBE Emakumeak eta UNFPA erakundeen gidaritzapean.

*Se ha renovado el Convenio de Colaboración que fue suscrito en 2005 por Emakunde y Eudel para la puesta en marcha y financiación de Berdinsarea/Red de Municipios vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres.*

*Se ha participado en las distintas comisiones y grupos de trabajo constituidos en el seno de la red, entre los que cabe destacar el trabajo colaborativo desarrollado en el ámbito de la violencia contra las mujeres y el llevado a cabo para promover la aplicación de evaluaciones previas de impacto en función del género a nivel local, incluida la elaboración y presentación de la publicación "Evaluaciones previas de impacto en función del género. Guía explicativa del proceso y herramientas diseñadas para su implantación en las entidades locales".*

*Se ha renovado el Convenio de colaboración con Eudel para apoyar y financiar el servicio de dinamización y asesoramiento a municipios de menor población y se ha realizado seguimiento de la ejecución de las actuaciones.*

*Se ha otorgado una subvención nominativa a Eudel para apoyarle en la gestión del Comité de Igualdad del Consejo de Municipios y Regiones de Europa (CMRE) y participado en la organización en la Conferencia Internacional sobre igualdad, diversidad e Inclusión organizada en Bilbao por Eudel y el CMRE.*

*Se han llevado a cabo diversas actividades en el marco de la colaboración internacional:*

*Se ha otorgado una subvención para el desarrollo del Programa Conjunto Global de las Naciones Unidas sobre Servicios Esenciales para Mujeres y Niñas Víctimas de la Violencia. Con relación al programa conjunto global mencionado, en éste año 2018, se han llevado a cabo tres jornadas específicas sobre los resultados del trabajo realizado hasta el momento para los ámbitos seguridad, asuntos sociales.*

*Se ha seguido colaborando y apoyando al Foro Rural Mundial en la organización de la VI Conferencia Global sobre Agricultura Familiar en el marco del Acuerdo Marco suscrito entre el Gobierno Vasco y dicha organización.*

*En colaboración con la Delegación de Euskadi en Estados Unidos y junto a una delegación del Parlamento Vasco, se ha participado en la 62 edición de la Comisión de la Condición Jurídica y Social de la Mujer de Naciones Unidas (CSW62). Además, de tomar parte en varias actividades programadas en el marco del CSW62, se mantuvieron reuniones con el senador demócrata John Garamendi, con responsables del proyecto IknowPolitics, con representantes de Nordic Forum, con representantes del Consejo de Igualdad de Francia, con el Ministerio de Igualdad de Malta y con responsables del movimiento The Global Alliance for Media and Gender (GAMAG), así como reuniones bilaterales de carácter general sobre posibles vías de colaboración con ONU Mujeres y UNFPA. Además, se participó en un evento de alto nivel con el resto de países que participan en el Programa conjunto sobre servicios esenciales para mujeres y niñas víctimas de violencia co-liderado por ONU Mujeres y UNFPA.*

Emakunde nazioartekotzeko 2019-2020 estrategia prestatu dugu, Estrategia Basque Country tresnaren esparruan.

*Se ha elaborado la Estrategia de internacionalización de Emakunde 2019-2020, en el marco de la Estrategia Basque Country.*

Euskadiren New Yorkeko ordezkaritzaren bidez, harremana izan dugu Quebeceko Delegazioak NBEn dituen ordezkariekin.

*A través de la Delegación de Euskadi en Nueva York se han mantenido contactos con representantes de la Delegación de Quebec ante la ONU.*

Hiru eguneko bisita antolatu genuen Tunezeko gobernuko ordezkari batzuentzat, Eusko Jaurlaritzak genero-ikuspegia integratzen duen esperientzia ezagut dezaten, Europar Batasunak finantzatutako lankidetza-proiektu baten esparruan.

*Se ha organizado la visita de estudio de tres días de una delegación del gobierno tunecino para conocer la experiencia del Gobierno Vasco en integración de la perspectiva de género, en el marco de un proyecto de colaboración internacional financiado por la Unión Europea.*

Garapenerako Nazio Batuen Programarekin elkarlanean aritu gara DELGEN ekimenaren esparruan (Tokiko garapena genero-ikuspegitik), aipatutako programak eta Emakundek sustatutako Genero-ikuspegia duten Tokiko Jardunbide Egokien sarietan parte hartuz, zertarako eta tokiko garapen ekonomikoak modu jasangarri eta eraginkorragoan txerta dezan genero-ikuspegia lurralde-plan eta -politikak diseinatzean, ezartzean eta ebaluatzean.

*Se ha colaborado con el Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo (PNUD) en el marco de la iniciativa DELGEN (Desarrollo Local desde la perspectiva de género ) mediante la participación en los premios a las Buenas Prácticas Locales con Enfoque de género, impulsada por el PNUD y Emakunde, además de otras entidades, para promover que el desarrollo económico local incorpore de forma más sostenible y efectiva la perspectiva de género en el diseño, implementación y evaluación de los planes y políticas territoriales.*

Generoaren Toki Agendei buruzko IV. Goi-bilera Iberoamerikarrean parte hartu dugu, Cuenca hirian (Ekuador). Goi Bileran, Emakundek bere esperientzia azaldu du, genero-ikuspegia euskal instituzioetan txertatzeko eta, horrela, emakumeen ahalduntzean aurrera egiteko abian jarritako ekintza eta politikei dagokienez. Era berean, euskal enpresetan berdintasuneko planak eta diagnostikoak garatzeko politiken eta estrategien berri eman du. Halaber, toki- eta genero-garapen ekonomikoari buruzko trebatze-tailer batean parte hartu dugu, zeinetan Emakundek enpresetan berdintasuneko diagnostikoak eta planak gara daitezen sustatzeko metodologiak, tresnak eta ekimenak aurkeztu dituen.

*Participación en la IV Cumbre Iberoamericana de Agendas Locales de Género, en la ciudad ecuatoriana de Cuenca. Durante la Cumbre Emakunde ha dado cuenta de la experiencia vasca en cuanto a acciones y políticas puestas en marcha para la incorporación de la perspectiva de género en las instituciones públicas del País Vasco y avanzar así en el empoderamiento de las mujeres. De igual modo, también ha compartido las políticas y estrategias para el desarrollo de planes y diagnósticos de igualdad en las empresas vascas. Así mismo se ha participado en un taller de capacitación sobre el desarrollo económico local y de género donde Emakunde ha presentado las metodologías, herramientas e iniciativas creadas para impulsar el desarrollo de diagnósticos y planes de igualdad en las empresas.*

Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza bat Argentinara eta Txilera bisitan joan dela-eta, ekimen hauek gauzatu ditugu azken herrialde horretan: memorandum bat sinatu da Emakunderen eta Txileko Gobernuko Emakumea eta Genero Ekitatea Sailaren artean; memorandum bat sinatu da Emakunderen eta Txileko Gobernuko Presidentetzaren Fundazio Sareko Familien Fundazioaren artean, gizonak berdintasunera hurbil daitezen sustatzeko; Alberto Hurtado Unibertsitateak antolatutako Emakumearen Autonomia Ekonomikoa eta Lehiakortasuna mintegian parte hartu da; eta lankidetza-akordioa egin da unibertsitate horren eta Emakunderen artean.

*Con ocasión de la visita de una delegación del Gobierno Vasco a Argentina y Chile, en este último país se llevaron a cabo las siguientes iniciativas: la firma de un Memorando entre Emakunde y el Ministerio de la Mujer y la Equidad de Género del Gobierno de Chile en el ámbito de la igualdad; la firma de un Memorando entre Emakunde y la Fundación de las Familias, de la Red de Fundaciones de la Presidencia del Gobierno de Chile para promover la incorporación de los hombres a la igualdad; la participación en el Seminario Autonomía Económica de la Mujer y su Competitividad, organizado por la Universidad Alberto Hurtado; y la adopción de un acuerdo de cooperación entre dicha universidad y Emakunde.*

Saharar herriari laguntza emateko euskal sarean parte hartzen jarraitu dugu.

*Se ha seguido participando en la Red vasca de apoyo al pueblo saharaui.*

Mexikoko Gobernuarekin emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egindako lankidetza-memorandumaren eta Eusko Jaurlaritzak Iberoamerikako Idazkaritza Nagusiarekin sinatutako esparru-akordioaren jarraipena egin dugu. Halaber, jarraipeneko eta koordinazioko bilerak egin ditugu NBE Emakumeak erakundearekin, UNFPA erakundearekin Euskadik

*Se ha realizado el seguimiento del Memorando de colaboración con el Gobierno de México en materia de igualdad de mujeres y hombres y al Acuerdo Marco suscrito por el Gobierno Vasco con la Secretaría General Iberoamericana (SEGIP). Asimismo, se han realizado reuniones de seguimiento y coordinación con representantes de ONU Mujeres, UNFPA y de las*

atzerrian dituen ordezkaritzekin.

Europar Batasunari dagokionez, honako jarduera hauek egin ditugu:

Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin elkarlanean, harremanetan egon gara Nordic Equality-ko ordezkariekin.

Genero Berdintasuneko Europako Institutuak kudeatzen duen Euro Gender sarean parte hartu dugu, eta harremanak izan ditugu, Eustatek Europar Batasuneko berdintasun-indizearen inguruan egiten duen kalkulua errazteko. Halaber, Europar Batasunaren egitura- eta inbertsio-funtsetako aurrekontuetan genero-ikuspegia barne hartzeari buruzko konferentzia batean parte hartu dugu, Vilna-n (Lituania). Genero Berdintasunerako Europako Institutuak antolatu du (EIGE).

Europar Batasunaren egitura- eta inbertsio-funtsekin lotuta hartutako konpromisoen jarraipena egin dugu.

Estatuko antzeko bestelako erakunde eta organismoekiko lankidetzari dagokionez, honako jarduera hauek egin ditugu:

Hezkuntzaren esparruan harremanetan egon gara Emakumearen Institutuak eta Hezkuntza Ministerioak bultzatutako Intercambia Sarearekin.

**4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOEKIN JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNA LANTZEKO**

Nahiko! Hezkidetza Programari dagokionez:

2017-2019 deialdia egin ondoren, 43 ikastetxek, 304 irakaslek eta 6.239 ikaslek (2.970 neska eta 3.269 mutil) parte hartuko dute. Programa horren barruan, 2018an, hezkidetzako prestakuntza orokorra emateko hiru jardunaldi egin ditugu irakasle guztientzat, eta 19 mintegi gauzatu ditugu.

Leioako Mesedeetako Andra Mari ikastetxean, programako materialak digitalizatzearen bideragarritasun-probak egin ditugu.

Begira – Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordearen lan-planari dagokionez, hedabideekin eta publizitate-agentziekin lan egiteko Begira Sarearekin jarraitu dugu, estrategiak garatzeko eta, horien bidez, kode deontologikoa eta sexismorik gabeko komunikazioa eta publizitatea egiteko adostu diren dekalogoak errazago betetzeko. Hiru lan-jardunaldi egin ditugu.

Begira Sareko erakundeek osatutako lantalde operatibo bat antolatu eta dinamizatu dugu. Taldea sarearen funtzionamendua sustatzeaz arduratzen da eta hiru bilera egin ditu.

Begira App aplikazioaren eta hori osatzen duen datu-basearen funtzionamendua eta kudeaketa mantendu ditugu.

Webguneko Begira atala eguneratu dugu, eduki berriak jarriz.

*Delegaciones de Euskadi en el exterior.*

*Por lo que respecta a la Unión Europea, se han llevado a cabo las siguientes actuaciones:*

*Con la colaboración de la Delegación de Euskadi para la Unión Europea se han mantenido contactos con representantes de Nordic Equality.*

*Se ha participado en la red Euro Gender que gestiona del Instituto Europeo de Igualdad de Género (EIGE) y se han mantenido contactos a fin de facilitar el cálculo por parte de Eustat del índice de igualdad de la Unión Europea. Se ha participado también en una conferencia europea, celebrada en Vilna (Lituania) sobre Prepuestos con enfoque de género en los Fondos Estructurales y de Inversión de la Unión Europea, organizada por el Instituto Europeo de Igualdad de Género (EIGE).*

*Se ha realizado un seguimiento de los compromisos adquiridos con relación a los Fondos Estructurales y de Inversión de la Unión Europea.*

*En cuanto a la colaboración con otras instituciones y organismos análogos del Estado, se ha realizado la siguiente actuación:*

*En el ámbito de la educación, se ha mantenido el contacto con la Red Intercambia impulsada por el Instituto de la Mujer y el Ministerio de Educación.*

***4. REALIZAR ACTUACIONES Y COLABORAR CON LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS PARA EL DESARROLLO DEL OBJETIVO DE IGUALDAD EN LAS POLÍTICAS PÚBLICAS***

*Respecto al Programa coeducativo Nahiko!:*

*Tras realizar la convocatoria 2017-2019, finalmente tomarán parte 43 centros escolares, 304 profesores y profesoras, 6.239 alumnas y alumnos (2.970 chicas y 3.269 chicos). Dentro de la misma, se han llevado a cabo en 2018 tres jornadas de formación general en coeducación para todo el profesorado y 19 seminarios.*

*Se han realizado en el colegio Mesedeetako Andra Mari de Leioa las pruebas de viabilidad de la digitalización de los materiales del programa.*

*En relación al plan de trabajo de la Comisión asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación, Begira, se ha continuado con la Red Begira de medios de comunicación y agencias de publicidad para desarrollar estrategias que faciliten el cumplimiento del código deontológico y de los decálogos consensuados para la realización de una comunicación y una publicidad no sexista. Se han llevado a cabo tres jornadas de trabajo.*

*Se ha organizado y dinamizado un grupo operativo de trabajo compuesto por entidades de la propia Red Begira. Este grupo encargado de impulsar el funcionamiento de la propia red ha mantenido tres reuniones de trabajo.*

*Se ha mantenido el funcionamiento y la gestión de la aplicación Begira App así como de la BBDD que la complementa.*

*Se ha actualizado la sección web Begira con nuevos contenidos.*

XV. Berdintasun Foroa antolatu dugu, izenburu honekin: «Berdintasuna ikasi egiten da. Irakatsi berdintasuna».

Foroaren irekiera-egunean, 2018ko urriaren 9an, parte hartzen zuten erakundeen arteko topaketa egin zen, elkarren ezagutza sustatu, sinergiak sortu eta erakundeok ikustera emateko.

Foroa urriaren 9tik abenduaren 21era bitartean izan zen, eta 117 erakunde publiko eta pribatu baino gehiagok parte hartu zuten; erakundeok 101 jardueratik gora antolatu dituzte 56 udalerritan, eta 4.500 parte-hartzaile baino gehiago izan dituzte.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko honako sentsibilizazio- eta informazio-jarduera hauek antolatu ditugu:

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna zela-eta, irratian, interneten eta egunkarietan kanpaina egin genuen, «Berdintasuna ikasi egiten da. Irakatsi berdintasuna» lemapean; lema bera erabili dugu Berdintasun Foroan.

Emakundeko zuzendariak iritzi-artikulua argitaratu zuen martxoaren 8an prentsa idatzian, izenburu honekin: «Ikasitako lezioak».

«Beldur Barik» kanpaina zabaldu dugu, gazteen artean emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko. Hiru foru-aldundiek babestu dute, baita Eudelek ere, eta Hezkuntza Sailak, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteria Zuzendaritzak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta EITBk laguntza eman dute.

Kanpaina bat egin dugu EITBko irratietan eta sare sozialetan, azaroaren 25a dela-eta, lema honekin: «Bai esaten diogu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzeari».

Kanpaina bat egin dugu sare sozialetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foroa dela eta.

Hitzarmen bat egin dugu EITBrekin urte osoan iragarki batzuk hedatzeko, mezu honekin: «Berdintasuna ikasi egiten da. Irakatsi berdintasuna».

Berdintasunerako 2017ko Emakunde Saria Virginia Imaz aktore eta clown-ari emateko ekitaldia egin dugu.

Emakunderen 2018ko Berdintasun Sariaren deialdia egin dugu, eta EHUko eta Deustuko Berdintasun Masterrak izango dira saridunak.

2018-2019ko eskola-agendak argitaratu eta banatu ditugu, berdintasunarekin lotutako mezuak txertatuta, DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleentzat.

Emakundeko zuzendariaren artikulua euskal prentsa idatzian: «Galdu ezin dugun olatua». Emakumeen aurkako Indarkeria Deuseztatzeko Nazioarteko Egunean argitaratu zen.

Hedabideetan etengabe agertu gara iritzi-artikuluen, prentsaurrekoen, prentsa-oharren zein elkarrizketen eta unean uneko eskaerei emandako erantzunen bitartez. Horrez gain komunikazio-jarduera hauek ere egin ditugu:

*Se ha organizado el XV Foro para la Igualdad con el título de “La igualdad se aprende, enseña igualdad”.*

*El día de la inauguración del Foro, el 9 de octubre de 2018 se celebró un encuentro entre las entidades participantes con el objetivo de favorecer el conocimiento mutuo, generar sinergias y dar visibilidad a dichas entidades.*

*El foro tuvo lugar del 9 de octubre al 21 de diciembre con la participación de más de 117 entidades públicas y privadas, que han organizado 101 actividades en 56 localidades y en las que han participado más de 4.500 personas.*

*Se han organizado las siguientes actividades de sensibilización e información orientadas a fomentar la igualdad de mujeres y hombres.*

*Campaña del 8 de marzo “Día Internacional de las Mujeres” bajo el lema “La igualdad se aprende. Enseña igualdad” en radio, internet y prensa y que ha servido también de lema para el Foro para la Igualdad.*

*Publicación el 8 de marzo de un artículo de opinión de la Directora de Emakunde en la prensa escrita bajo el título “El valor de las alianzas”.*

*Se ha difundido la campaña “Beldur Barik” dirigida a la prevención de la violencia contra las mujeres en la juventud, con el apoyo de las tres diputaciones forales y Eudel, y con la colaboración del Departamento de Educación, de la Dirección de Juventud del Departamento de Empleo y Políticas Sociales, de la Universidad del País Vasco y de EiTB.*

*Se ha realizado una campaña en las radios de EITB y redes sociales con motivo del 25 de noviembre, bajo el lema “Digo sí a la construcción de una sociedad libre de violencia contra las mujeres”.*

*Se ha realizado una campaña en redes sociales con motivo del Foro para la Igualdad de Mujeres y hombres.*

*Convenio con EITB para difundir durante todo el año cuñas con el mensaje “La igualdad se aprende. Enseña igualdad”.*

*Acto de entrega del Premio Emakunde a la Igualdad, edición 2017, a la actriz y clown Virginia Imaz.*

*Convocatoria del Premio Emakunde a la Igualdad, edición 2018 que se ha otorgado a los Master de igualdad de UPV/EHU y Deusto.*

*Publicación y reparto de Agendas escolares 2018-2019 con mensajes relacionados con la igualdad para alumnado de 1º y 2º de la ESO.*

*Artículo de opinión de la Directora de Emakunde en la prensa vasca con el título “Una ola que no podemos perder” con ocasión del Día Internacional para la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres.*

*Se ha mantenido una presencia continuada en medios de comunicación a través de la publicación de artículos de opinión, ruedas de prensa y notas de prensa, además de entrevistas y respuestas a demandas puntuales. Asimismo, se han realizado las siguientes actuaciones de comunicación:*

Emakunde aldizkari digitala albiste eta elkarrizketez hornitu dugu.

Aldizkariaren edukiak buletin elektronikoetan (newsletterrak) bidali ditugu.

Interneten eta sare sozialetan etengabe eman dugu berdintasunaren arloko azken albisteen berri; izan ere, webgunea eta Facebook, Twitter zein Instagrameko kontuak ditu Emakundek. Gainera, Emakunderen jarduerarekin lotutako bideoak igo ditugu sarera, eta erakundeak kontu bat dauka dagoeneko YouTuben.

Emakunderi buruzko albisteak eta eguneraketak argitaratu ditugu gobernu irekiaren Irekia atarian.

Berariazko prentsa-txostenak prestatu ditugu.

Argiri elkartearekin lankidetzan jardun dugu Irungo alarde mistoa egiteko dirulaguntza izendun baten bitartez.

Zinema Ikusezineko Jaialdiarekin elkarlanean aritu gara emakume errealizadore onenaren saria lagunduz.

Berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka gizartea eta gizonak inplikatzea sustatzeari dagokionez, Gizonduz ekimenaren barruan, honako jarduera hauek nabarmendu behar ditugu:

Programaren jardueraren gaineko urteko memoria egin dugu, eta horren berariazko webgunea eta sare sozialetako presentzia kudeatu ditugu (Facebook, Twitter, YouTube eta Vimeo).

2018ko sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa burutu dugu.

«Gazteak Berdintasunean 2.0» proiektua gauzatu dugu, matxismozko eta indarkeriazko jokabideak prebenitzeko asmoa duena.

Toki-eremuan eta Eusko Jaurlaritzaren eremuan berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra dauden gizonezko politikarien taldeak sortzeko prozesuak garatu ditugu.

«Gizonok esan eta egin» kanpaina diseinatu eta zabaldu dugu eta horretarako aplikazio informatiko bat egin dugu.

«Euskal gizonak berdintasunaren alde» jardunaldiak antolatu ditugu. Lehendakariak aurkeztu ditu jardunaldiok eta, horietan, Gizonduz erakundearen hamargarren urteurrena ospatu da.

Elkarlanean aritu gara Kanarietako Gobernuarekin, berdintasunaren alde dauden gizonekin lan-ildo bat garatzeko.

Artikuluak eta elkarrizketak egin ditugu, irratian eta egunkarietan, eta zenbait forotan parte hartu dugu Gizonduz aurkezteko; hauetan, besteak beste: Eudelek eta Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluko Berdintasun Batzordeak Bilbon antolatutako Berdintasunari, aniztasunari eta inklusioari buruzko Nazioarteko Biltzarrean; Gizakia Helburu elkartearen XX. Jardunaldietan, zeinak mendekotasunen esku-hartzean ikuspegi osoa izateari buruzkoak ziren; FEPAIM fundazioak antolatutako «Eta gizonak zer?» jardunaldietan; Kultura, Komunikazioa eta Garapeneko XI. Nazioarteko Topaketan,

*Mantenimiento de la revista digital Emakunde con noticias y entrevistas.*

*Remisión de boletines electrónicos “newsletter” con los contenidos de la revista.*

*Actualización constante de la actualidad en materia de igualdad en internet y redes sociales, contando Emakunde con una web, cuenta en Facebook, Twitter e Instagram. Asimismo, se han subido a la red los vídeos relacionados con la actividad de Emakunde, contando el instituto con una cuenta propia en el canal YouTube.*

*Publicación de noticias y actualizaciones referidas a Emakunde en el portal Irekia de Gobierno abierto.*

*Preparación de dosieres de prensa específicos.*

*Se ha colaborado con la Asociación Argiri, a través de una subvención nominativa para la celebración del alarde mixto de Irun.*

*Se ha colaborado con el Festival de Cine Invisible apoyando el premio a la mejor mujer realizadora.*

*En cuanto a la promoción de la implicación de la sociedad y de los hombres a favor de la igualdad y en contra de la violencia hacia las mujeres cabe destacar, en el marco de la iniciativa Gizonduz, las siguientes actuaciones:*

*Se ha realizado la Memoria anual de actividad del programa y gestionado su espacio web específico y su presencia en las redes sociales (Facebook, Twitter, YouTube y Vimeo)*

*Se ha llevado a cabo el Programa de sensibilización y formación correspondiente a 2018.*

*Se ha desarrollado el proyecto “Gazteak Berdintasunean 2.0”, dirigido a prevenir conductas machistas y violentas en la juventud.*

*Se han desarrollado procesos para la constitución de grupos hombres políticos a favor de la igualdad y en contra de la violencia hacia las mujeres en el ámbito local y en el ámbito de Gobierno Vasco.*

*Se ha diseño y difundido la campaña “ Gizonok esan eta Egin” y la aplicación informática creada al efecto.*

*Se organizado la Jornada Hombres Vascos por la Igualdad presidida por el Lehendakari en la que se conmemoraron los 10 años de Gizonduz.*

*Se ha colaborado con el Gobierno de Canarias para el desarrollo de una línea de trabajo con hombres a favor de la igualdad.*

*Se ha realizado artículos y entrevistas en radio y prensa y participado en distintos foros, entre los que cabe destacar la presentación de Gizonduz en la Conferencia Internacional sobre igualdad, diversidad e Inclusión, organizada en Bilbao por Eudel y el CMRE; en las XX Jornadas de Proyecto Hombre sobre una visión integral en la intervención en adicciones; en las Jornadas “¿Y Los hombres qué?, organizadas por la Fundación FEPAIM; en el XI. Encuentro Internacional de Cultura, Comunicación y Desarrollo “Música, sexo, deporte ¿Temas de hombres?” en el marco del curso de verano de la UPV/EHU; en las*

«Musika, sexua, kirola. Gizon kontuak?», EHUko udako ikastaroaren esparruan; Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Lan Sailak antolatutako «Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko elkarlanean» jardunaldietan; Osakidetzak antolatutako Genero Indarkeriari buruzko VII. Jardunaldian; eta indarkeria sexistaren inguruan jarduteko politika publikoei buruz Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako lan-saioetan.

*Jornadas "Trabajando para la prevención de la violencia contra las mujeres" organizada por el Departamento de Justicia y Trabajo del Gobierno Vasco; en la VII Jornada sobre Violencia de Género, organizada por Osakidetza; y las sesión de trabajo sobre las políticas públicas hacia los hombres en la actuación en materia de violencia sexista, organizada por la Diputación Foral de Bizkaia.*

Lau orduko prestakuntza eman zaie Agirre Lehendakaria Center ikastetxeko Etorkizuneko Liderrak prestatzeko programako ikasleei.

*Se ha impartido una acción formativa de 4 horas al alumnado del Programa Formativo de líderes de futuro del Agirre Lehendakaria Center.*

Genero-eraginaren aurretiko ebaluazioari buruzko adituen mintegian parte hartu dugu.

*Participación en el seminario de expertas y expertos sobre evaluaciones previas de impacto de género.*

Jarraitutasuna eman diogu interlokuzio soziopolitikorako partaidetzako prozesuari, Emakunderen Aholku Batzordearen esparruan; prozesu hori emakume feministen fundazioen, federazioen eta elkarteen bidez Emakunderen eta emakume herritarren arteko komunikazioa izateko bidea da.

*Se ha dado continuidad al proceso participativo para la interlocución sociopolítica, en el marco de la Comisión Consultiva de Emakunde, cauce de comunicación establecido entre Emakunde y la ciudadanía de mujeres a través de las fundaciones, federaciones y asociaciones de mujeres feministas.*

Prozesu hori sustatu eta aberasteko, 2018rako adostutako komunikazio-plana gauzatu dugu beharrezko tresnekin; era berean, aurreikusitako prestakuntza-saio guztiak egin ditugu, elkarrizketa eraginkorra izateko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko gizarte-eraldaketa lortzeko. Guztira, 8 lan-saio gauzatu ditugu.

*Para apoyar y enriquecer dicho proceso, se ha desarrollado el plan de comunicación con las herramientas precisas acordado para el año 2018, así mismo se han ejecutado el total de las sesiones formativas previstas para una interlocución con incidencia y transformación social a favor de la igualdad de mujeres y hombres. Se han ejecutado un total de 8 sesiones de trabajo.*

Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban zenbait lurralde-bilera egin ditugu. Hiru lurraldeetan, 2018rako helburuak eta ekintzak adostu ditugu elkarteen mugimenduekin: lan-metodologiak, dokumentuen diseinua, berariazko prestakuntza, lurralde-topaketak antolatzeko beharrezko edukiak. Guztira, 16 bilera gauzatu ditugu.

*Se han realizado reuniones territoriales en Bizkaia, Gipuzkoa y Álava. En los tres territorios se ha acordado con los movimientos asociativos, los objetivos y acciones para el año 2018: metodologías de trabajo, diseño de documentos, formación específica, así como los contenidos precisos en la organización de encuentros territoriales. Se han realizado un total de 16 reuniones.*

Aholku Batzordearekiko elkarlana dinamizatu dugu, 3 lurraldeen arteko elkarlanerako tresna digitalei buruzko prestakuntza diseinatzeko.

*Se ha dinamizado la colaboración con la Comisión Consultiva para el diseño de una formación en herramientas colaborativas digitales entre los 3 territorios.*

Berariazko metodologia bat diseinatu eta abiarazi dugu, lurraldeetako Kontsulta Azpibatzordeen arteko komunikazioa eta harremanak sistematizatzeko elkarlaneko tresna teknologikoen bidez; horretarako, prestakuntzako eta laneko 12 saio egin ditugu.

*Se ha logrado el diseño y la puesta en marcha de una metodología específica para sistematizar la comunicación y conexiones entre las Subcomisiones Consultivas territoriales a través de herramientas tecnológicas colaborativas, para ello se han realizado un total de 12 sesiones de formación y trabajo.*

Elkarteek aholkularitza eta orientazioa izateko egindako eskaera guztiei erantzun diegu, hala haien proiektuekin laguntzeko baliabideen eskuragarritasunari dagokionez nola haietan genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez.

*Se han atendido todas las demandas de asociaciones para responder a sus peticiones de asesoramiento, orientación tanto en lo relativo al acceso a recursos de apoyo para sus proyectos como para integrar la perspectiva de género en los mismos.*

Euskadiko Emakume Ijitoen Batzordearekin lankidetzan aritu gara, esparru horretan egindako ekintza estrategikoen edukiei buruzko aholkuak emateko.

*Se ha colaborado con la Comisión de Mujeres Gitanas del País Vasco, asesorando en los contenidos de las acciones estratégicas desarrolladas en este marco.*

EAEko emakumeen elkarteen mugimenduarentzako jardunaldi bat antolatu eta gauzatu dugu; jardunaldi horren helburu estrategikoa emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo eta sozialaren gakoak eta mugarriak lantzen jarraitzea da. 2018ko gaia sororitatea izan da, talde- eta genero-ahalduntzea lortzeko bide gisa.

*Se ha organizado y ejecutado la jornada dirigida al movimiento asociativo de mujeres de la CAE, cuyo objetivo estratégico está siendo el de continuar trabajando las claves e hitos sobre el empoderamiento personal, colectivo y social de las mujeres. La temática durante el año 2018, ha girado en torno a la sororidad como vía para el empoderamiento colectivo y de género.*

Emakume sareei laguntzen jarraitu dugu, askotariko arloetan: alargunak, nekazariak eta landa-ingurunekoak eta emakume etorkinak, besteak beste.

Emakumeen elkartegintza sustatzeko eta EAEko esparru guztietan haien parte-hartzea indartzeko dirulaguntzak deitu ditugu. Deialdian, 212 elkarteren eskabideak jaso ditugu eta 185 izan dira onuradun.

Berdinsarearen esparruan, 2018ko programa-proposamena diseinatu eta garatu dugu «Virginia Woolf Basqueskola» eskolarako (Euskadiko udaletako emakume hautetsientzako lehen prestakuntza-eskola).

Biltzen zerbitzuarekin (Integraziorako eta kulturen arteko Bizikidetzarako zerbitzua) lankidetzan aritu gara, Errumakultur elkarteak errumaniar kulturaren integrazioarekin lotuta egindako eskakizunari erantzuteko.

Bertsozale Elkartearekin lankidetzan aritu gara dirulaguntza izendun baten bidez emakume bertsolariak ahalduntzeko aukera ematen duten prestakuntza-jardueretan laguntzeko, baita bertsolaritzan genero-ikuspegia txertatzeko aurrerapausoak egiteko ere.

Centro Azkuna de Ocio y Cultura SA enpresarekin (lehen, La Alhóndiga Centro de Ocio y Cultura SA) lankidetzan aritu gara, dirulaguntza izendun baten bidez, Ezagutza Feministak Sarean proiektua egiteko.

Elkarlanean aritu gara Deustuko Unibertsitateak sustatzen duen Emakume Teknologoa sariarekin.

Jakintzaren eta lanbide-jardueraren hainbat eremutan aditu diren emakumeen direktorioa jendarteratu, eguneratu eta handitzeko aukera ematen duen informatika-aplikazioa kudeatzen jarraitu dugu, emakumeek komunikabideetan eta bestelako jardueretan (zientifikoak, prestakuntzakoak eta abar) parte-hartze handiagoa izatea sustatzeko eta ahalbidetzeko.

Berdintasunerako eskubideak defendatzeko arloak informazio-eskaera, salaketa eta kexa ugariri erantzun die:

Telefono bidezko nahiz aurrez aurreko 250 kontsultatik gora artatu ditu. Unean bertan eman du erantzuna, edo ebazteko eskumena duten organo eta zerbitzuetara bideratu ditu.

Tratu-berdintasunari eta sexuagatiko bazterkeria ezari buruzko informazio eta aholkularitza espezializatua jasotzeko 67 eskaerari idatziz erantzun diete.

Sexu-bereizkeriako ustezko egoerei buruz aurkeztutako 35 salaketa eta 82 kexa erregistratu dira. Horietatik 59, gaiarengatik edo eskumenen eremu geografikoarengatik, Arartekoari eta/edo Emakumearen Institutuari bideratu zaizkio. 7 kasu artxibatu edo ezetsi dira. 45 gomendio eman dira.

Begirak 77 kexa jaso ditu komunikazio eta publizitate sexistari buruz. Horien artean, nabarmentzekoak dira

*Se ha continuado apoyando las redes de mujeres en distintos ámbitos: de viudas, de mujeres agricultoras y rurales y mujeres inmigrantes entre otras.*

*Se han convocado las subvenciones para fomentar el asociacionismo y potenciar la participación de las mujeres en todos los ámbitos de la CAE. Las solicitudes de asociaciones que se han presentado a la convocatoria han sido 212, siendo 185 las beneficiarias.*

*En el marco de Berdinsarea se ha diseñado y desarrollado la propuesta de programa 2018 para "Virginia Woolf Basqueskola", primera escuela de formación para mujeres electas municipales de Euskadi.*

*Se ha llevado a cabo un trabajo de colaboración con Biltzen, servicio de integración y convivencia intercultural con el fin de responder a la demanda de integración de la cultura rumana solicitada por la Asociación de Mujeres Vida Cultural Rumana-ERRUMAKULTUR.*

*Se ha colaborado con Bertsozale Elkartea a través de una subvención nominativa para proporcionarles apoyo en actividades formativas que posibiliten el empoderamiento de las mujeres bertsolaris y para avanzar en la incorporación de la perspectiva de género en la bertsolaritza.*

*Se ha colaborado con el Centro Azkuna de Ocio y Cultura, S.A., (anteriormente La Alhóndiga Centro de Ocio y Cultura, S.A.), a través de una subvención nominativa, para la realización del proyecto Conocimientos Feministas en Red.*

*Se ha colaborado con el Premio a la Mujer Tecnóloga promovido por la Universidad de Deusto.*

*Se ha mantenido la gestión de la aplicación informática que permite difundir, actualizar y ampliar el directorio de mujeres expertas en diversos ámbitos del conocimiento y de la actividad profesional, a fin de promover y facilitar una mayor participación de las mujeres tanto en los medios de comunicación como en otras actividades (científicas, formativas, etc.).*

*El Área para la defensa de los derechos de igualdad ha atendido numerosas solicitudes de información, denuncias y quejas:*

*Se han atendido más de 250 consultas telefónicas y presenciales que han sido respondidas en el momento o derivadas a aquellos órganos y servicios competentes para su resolución.*

*Se ha respondido por escrito a 67 solicitudes de información y asesoramiento especializado en materia de igualdad de trato y no discriminación por razón de sexo.*

*Se han registrado 35 denuncias y 82 quejas relativas a presuntas situaciones de discriminación por razón de sexo. 59 de ellas, por su temática o ámbito de competencia geográfica, han sido derivadas al Ararteko y/o al Instituto de la Mujer, mayormente. 7 casos han sido archivados o se ha producido desistimiento. Se han emitido 45 recomendaciones.*

*Respecto al número de quejas a Begira sobre comunicación y publicidad sexistas son un total de 77.*

publizitatea eteteko bi eskabide eta gaiari buruzko 4 aholkularitza espezializatu.

*Entre las cuales caben destacar dos requerimientos de cese de publicidad y 4 asesoramientos especializados en la materia.*

Enpresetan eta erakundeetan berdintasun-politikak sustatzeari dagokionez, jarduera hauek egin ditugu:

*Respecto a la promoción de políticas de igualdad en empresas y entidades se han realizado las siguientes actuaciones:*

537 enpresari baino gehiagori informazioa eta aholkularitza eman diegu berdintasunerako legeen inguruan eta emakumeen eta gizonen desberdintasunaren eta bereizkeriaren aurka borrokatzeko dauden neurrien inguruan.

*Se ha informado y asesorado a más de 537 empresas en relación con las leyes de igualdad y las medidas existentes para luchar contra la discriminación y desigualdad de mujeres y hombres.*

Enpresa eta beste erakunde pribatu batzuentzako informazioa eta aholkularitza eman dugu, emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostiko bat eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduera-plan bat egin ditzaten, diru-laguntzen deialdi baten bidez.

*Se ha informado y asesorado de forma continuada a la demanda, creciente, de empresas y otras organizaciones privadas para la realización de un diagnóstico sobre la situación de mujeres y hombres y un plan de actuación dirigido a promover la igualdad de mujeres y hombres, a través de una convocatoria de subvenciones.*

Emakumeen enplegua sustatzeko kontratu motei eta laguntzei buruzko gidaliburua eguneratu dugu.

*Se ha actualizado la “Guía de ayudas y modalidades de contratación para promover el empleo de las mujeres”.*

EAEn emakumeen ekintzailetza bultzatzeko laguntzen mapa gidaliburua eguneratu dugu.

*Se ha actualizado la guía “Mapa de ayudas para el apoyo del emprendimiento de mujeres en la CAE”.*

11/2014 Dekretu berriaren babespean «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetza-erakunde» gisa aitortua izateko 21 eskaera baloratu ditugu eta 12 errekonozimendu eman ditugu.

*Se han valorado 21 solicitudes para el reconocimiento como “Entidad Colaboradora para la Igualdad de Mujeres” al amparo del nuevo Decreto 11/2014 y se han otorgado 12 reconocimientos.*

Aholkularitza-entitateei informazioa eta aholkuak eman dizkiegu, enpresei eta erakundeei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa jasotzeko deialdiari buruz.

*Se ha informado y asesorado a consultoras en relación con la convocatoria para la homologación de consultoras para la prestación de asistencia técnica en materia de igualdad de mujeres y hombres a empresas y entidades.*

Homologatutako Aholkularitzen jarraipena egin dugu, homologaziorako baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko. Gainera, bi berri homologatu ditugu.

*Se ha realizado el seguimiento de las Consultoras Homologadas para corroborar que siguen cumpliendo con los requisitos para la homologación. Además, se han homologado dos nuevas.*

23 enpresa eta erakunde baloratu ditugu diagnostiko bat eta berdintasunerako plan bat egiteko homologatutako aholkularitza-erakunde bat kontratatzeko laguntzen deialdiaren barruan. Eskaera guztiak baloratu ondoren, dirulaguntza 12 erakunderi eman diegu, 7 ordezko moduan geratu dira, 2 erakunderi ukatu egin diegu dirulaguntzaren baldintzak ez betetzeagatik, eta 2 erakundek uko egin diote dirulaguntzari.

*Se han valorado 23 empresas y entidades dentro de la convocatoria de ayudas para la contratación de una consultora homologada para la realización de un diagnóstico y un plan de igualdad. Tras la valoración de todas las solicitudes se ha adjudicado la subvención a 12 entidades, 7 han quedado suplentes, 2 han sido denegadas por no cumplir los requisitos de la subvención y 2 se han retirado de la convocatoria.*

Genero-ikuspegia enpresa txikietan txertatzeko metodologia bat prestatzen bukatu dugu, homologatutako enpresak eta eragile nagusiak egiaztatu ondoren. Metodologia hiru lurralde historikoetan aurkeztu dugu eta horri buruzko aholkularitza-zerbitzu bat jarri dugu herritarren eskura, urteko bigarren seihilekoan.

*Se ha finalizado la elaboración de una metodología para trabajar la incorporación de la perspectiva de género en las empresas pequeñas tras un contraste con las empresas consultoras homologadas y agentes clave . La metodología se ha presentado en los tres territorios históricos y se ha puesto a disposición de la ciudadanía un servicio de asesoramiento sobre la misma durante el segundo semestre del año.*

EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako erakunde kolaboratzaileen sarea (BAI Sarea) formalki eratu genuen martxoan, eta 63 erakunde publiko eta pribatu daude sare horretan, gaur egun. Hauek dira sarearen helburuak, besteak beste: ezagutza partekatzea, neurriak garatzeko lankidetzan aritzea eta errealitate soziala eraldatzea, berdintasuna balio estrategiko moduan sustatuz elkarteetan.

*Se ha constituido formalmente la Red de Entidades Colaboradoras para la igualdad de mujeres y hombres en la CAE (BAI Sarea) en marzo y actualmente forman parte de ella 63 entidades públicas y privadas. Los objetivos de la Red son entre otros compartir conocimiento, colaborar en el desarrollo de medidas y transformar la realidad social impulsando la igualdad como valor estratégico en las organizaciones.*

Berdintasunaren aldeko Erakunde Publikoen Sarea dinamizatu dugu, Eusko Jaurlaritzaren SharePoint plataforma indarrean mantenduz, Herri Administrazio eta Justizia Saileko berdintasun-unitatearekin lankidetzan.

*Se ha dinamizado la Red de Entidades Públicas para la Igualdad manteniendo vigente la plataforma de Share-Point del Gobierno Vasco en colaboración con la unidad para la igualdad del Departamento de Administración Pública y Justicia.*

Gaur egun, 25 erakundek osatzen dute sarea. Lan-prozesu bati ekin diogu laguntza teknikoarekin, erakunde publikoek berdintasun-politiken arloan dituzten premiei egokituta. Prozesu horretan, 7 lan-saio gauzatu ditugu eta, guztira, 125 pertsonak eta 88 erakundek hartu dute parte.

*En la actualidad constituyen la Red 25 entidades. Se ha iniciado un proceso de trabajo con apoyo técnico, ajustado a las necesidades de las entidades públicas en materia de políticas de igualdad. Durante este proceso se han desarrollado 7 sesiones de trabajo; en conjunto han participado un total de 125 personas y 88 entidades.*

Erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu, indartu eta koordinatzea ditu helburutzat sareak, ikaskuntza partekatuaren eta elkarlanaren bitartez.

*Los objetivos de la Red son impulsar, fortalecer y coordinar las políticas de igualdad en las entidades públicas a través del aprendizaje compartido y el trabajo colaborativo.*

Virginia Imazek «Berdintasunez jokatuz berritzea tailerra» eman zuen Euskalduna Jauregian, maiatzaren 16an, Innobasquek antolatutako Global Innovation Day jardunaldiaren esparruan.

*"Taller: Innovar jugando con igualdad" impartido por Virginia Imaz el día 16 de mayo en el marco del Global Innovation Day organizado por Innobasque.*

Lan-ikuskaritzarekin elkarlanean, soldata-aldeari eta generoari buruzko bi goizeko prestakuntza-jardunaldi bat antolatu dugu lan-ikuskarientzat.

*Se ha organizado una Jornada de formación de dos mañanas en colaboración con Inspección de Trabajo dirigida a inspectoras e inspectores de trabajo sobre brecha salarial y género.*

Osalanekin eta lan-ikuskaritzarekin elkarlanean, jardunaldi bat antolatu dugu lan-osasunari eta genero-ikuspegiari buruz: hurbilketa bat arrisku muskuloeskeletikoetara eta sexu-jazarpen eta sexu-arrazoiengatiko jazarpenera.

*Se ha organizado una Jornada en colaboración con Osalan e Inspección de trabajo sobre salud laboral y perspectiva de género: una aproximación a los riesgos musculoesqueléticos y a la prevención de acoso sexual y por razón de sexo.*

Batzar bat antolatu dugu emakumeen osasunaren nazioarteko eguna dela-eta; maiatzaren 28an egin zen Bilbon, «Depresiotik suspertzea: generoa, gorputza eta aldaketa-gaitasuna» izenburupean, eta Maria Zapata Hidalgok eman zuen.

*Se ha organizado una Conferencia por el día internacional de la salud de las mujeres, que se realizó el día 28 de Mayo en Bilbao, con el título "Recuperarse de la depresión: género, cuerpo, y capacidad de cambio" y que fue impartida por María Zapata Hidalgo.*

Euskalitekin hitzaldiak eman ditugu, «Berdintasuna kudeaketa aurreratuan: tresnak eta esperientziak» izenburupean, 2018ko Kudeaketa Aurreratuari buruzko XXIV Europar Astearen Batzarraren esparruan.

*Se han realizado ponencias conjuntas con Euskalit sobre "Igualdad en gestión avanzada: herramientas y experiencias, II" en el marco del Congreso de la XXIV Semana Europea Gestión Avanzada 2018.*

«Genero-arrakala soldatetan eta pentsioetan; lan- eta zainketa-lanak» jardunaldia antolatu dugu, 2018ko Kudeaketa Aurreratuari buruzko Europar Astearen esparruan.

*Se ha organizado una Jornada "La brecha de género en salarios y pensiones. Tiempos de trabajo y cuidados", en el marco de la XXIV Semana Europea Gestión Avanzada 2018.*

Gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko BELDUR BARIK kanpaina sustatu eta kudeatu dugu. Horretarako, lankidetza-hitzarmen bana sinatu dugu foru-aldundiekin eta EITBko eta EHUko Gazteria Zuzendaritzekin. Beldur Barik lehiaketaren 2018ko edizioan, 129 udalerrik hartu dute parte eta 58 udalerritako 309 bideo aurkeztu dira. Azken Topaketa (Beldur Barik Topaketa) eta sari-banaketa Gasteizen egin ziren, azaroaren 24an; 150 pertsonak hartu zuten parte tailerretan eta 250 pertsonak sari-banaketan.

*Se ha impulsado y gestionado la campaña BELDUR BARIK de prevención de la violencia sexista en la juventud, para lo que se ha firmado un convenio de colaboración con cada una de las Diputaciones Forales, así como con las Direcciones de Juventud EITB, UPV/EHU. En la edición 2018 del concurso Beldur Barik han participado 129 municipios y se han presentado 309 vídeos de 58 municipios. Se celebró el Encuentro final (Topaketa Beldur Barik) y la entrega de premios en Vitoria-Gasteiz el 24 de noviembre, con 150 participantes en los talleres y un total de 250 en la gala de entrega de premios.*

Irabazi asmorik gabeko erakunde, elkarte eta fundazioentzako diru-laguntzen deialdia egin eta kudeatu dugu 2018an, emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideak prebenitzeko eta/edo sentsibilizatzeko ekintzei dagokienez, edota berdintasunezko jarrerak sortzen dituzten estrategiak egin ditzaten, indarkeria mota hori

*Se ha realizado y gestionado la convocatoria de subvenciones a organizaciones, asociaciones y fundaciones, sin ánimo de lucro, para la realización durante 2018 de acciones de sensibilización y/o de prevención de comportamientos violentos contra las mujeres, así como estrategias que conduzcan a generar actitudes igualitarias*

prebenitzeko oinarri gisa. Guztira, 89 proiektu aurkeztu dira; horietatik 42k jaso dute dirulaguntza. Gainera, beste 24 proiektu onartu dira, baina ez dute dirulaguntzarik jaso, aurrekontua agortu delako.

*como base para la prevención de esta violencia. El número de proyectos presentados ha sido de 89 y se han aprobado un total de 42 proyectos que han recibido subvención, así como otros 24 proyectos que habiendo sido aprobados no han obtenido subvención por agotamiento del crédito.*

Jabetuz programa kudeatzen eta sustatzen jarraitu dugu; emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionalentzako online prestakuntza-programa da. Programak 6 unitate didaktiko ditu; guztira, Emakunderen tutoretzapeko 85 prestakuntza-ordu. Ikasle bakoitzaren banakako parte-hartzea, testak eta jarduerak ebaluatu ondoren ziurtatu ditu Emakundek, gainera. Bi edizio egin ditugu 2018an, eta hiru hilabeteko iraupena izan du bakoitzak. 200 pertsonak parte hartu dute guztira.

*Se ha continuado gestionando e impulsando el programa Jabetuz, programa de formación on-line a profesionales que atienden a víctimas de violencia contra las mujeres. El programa consta de 6 unidades didácticas, que suponen un total de 85 horas de formación tutorizadas y certificadas por Emakunde tras evaluar la participación, tests y actividades individuales de cada alumna o alumno. Durante 2018 se han realizado dos ediciones con una duración de tres meses cada una. La participación total ha sido de 200 personas.*

Gainera, JABETUZ programaren barruan online prestakuntza-ikastaro aurreratua egiten jarraitu dugu; hiru unitate didaktikoz osatua, 35 ordu irauten dute eta ikastaroak 101 parte-hartzaile izan ditu guztira.

*Además, se ha continuado con el curso avanzado de formación on line dentro del programa JABETUZ, formado por tres unidades didácticas de 35 horas de duración y con una participación de 101 personas.*

Bertha Gaztelumendik zuzendutako Volar dokumentala herri askotan ematen jarraitu dugu. Zenbait zinema-jaialditan aurkeztu da eta harrera oso ona izan du. Prozesuarekin jarraitzeko, zenbait bilera izan ditugu emakume biziraule/biktimen elkarteekin, lanerako eta baterako hausnarketarako sare bat sortzeko aukera aztertzeko. Gaur egun, prozesua bultzada berri baten zain dago.

*El documental Volar dirigido por Bertha Gaztelumendi, ha seguido proyectándose en numerosas localidades. Se ha presentado a varios festivales de cine, y ha tenido una gran acogida. Como continuidad del proceso, se han mantenido varias reuniones con las asociaciones de mujeres supervivientes/víctimas para ver la posibilidad de crear una red de trabajo y reflexión conjunta. En estos momentos, el proceso está a la espera de un nuevo impulso.*

Lanaren eta kirolaren eremuan sexu-jazarpena eta jazarpen sexista prebenitzeko eta tratatzeko neurrien berri ematen eta neurrion aplikazioa sustatzeko kontsultei erantzuna ematen jarraitu dugu.

*Se ha continuado la difusión y la respuesta a consultas para promover la aplicación de medidas de prevención y tratamiento de acoso sexual y sexista en el ámbito laboral y en el deportivo.*

Askabide erakundearentzat dirulaguntza izenduna izapidetu eta kudeatu dugu sexu-esplotaziora bideratutako giza salerosketaren biktima diren emakumeentzako arreta osoa kudeatzeko.

*Se ha tramitado y gestionado una subvención nominativa a la entidad Askabide para la gestión de la atención integral a mujeres víctimas de trata de seres humanos con fines de explotación sexual.*

Gainera, Oblatas kongregazioari dirulaguntza izenduna eman diogu, emakumeen salerosketaren biktimak hautematera zuzendutako proiektu bat kudeatzeko.

*Además, se ha tramitado y gestionado una subvención nominativa a la entidad Congregación Oblatas para la gestión de un proyecto dirigido a la detección de mujeres en situación de trata.*

Gizakien sexu-esplotaziorako salerosketaren arloko EAEko mahaiaren osoko bilkura egin dugu.

*Se ha celebrado una reunión plenaria de la Mesa de trata de seres humanos con fines de explotación sexual de la CAE.*

Hiru prestakuntza-saio egin ditugu Gizakien Salerosketari buruzko Erakundearteko Mahaian ordezkaritza duten erakunde guztiekin, bai eta beste eragile instituzional, sozial eta juridiko batzuekin ere.

*Se han realizado tres jornadas de formación dirigidas a todas las instituciones con representación en la Mesa Interinstitucional de Trata de Seres Humanos, así como a otros operadores institucionales, sociales o jurídicos.*

Euskal Autonomia Erkidegoak konpromisoa hartu du genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eta horien seme-alaben giza eskubideak bermatzeko eta babesteko, bai eta indarkeria hori prebenitzeko ere. Hala, instituzioek emakumeen aurkako indarkeriari ematen dioten erantzuna hobetzeko asmoa duen legeria erreformatzeko prozesuarekin jarraitu du. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskal Legeria hobetzeko diagnostiko-tailerrak eta Erakundearteko II. Akordioko lantaldeak osatzeko, herritarren eskura onlineko plataforma bat jarri dugu, ekarpen gehiago jaso ahal izateko. Ekarpen horiez gain, biktimak artatzeko zerbitzuen kalitate-estandarrei buruz hausnartzeko erkidegoan egindako

*La Comunidad Autónoma del País Vasco, comprometida en la protección y garantía de los derechos humanos de las mujeres víctimas de violencia de género y de sus hijos e hijas, así como en la prevención de tal violencia, continua con el proceso en torno a la reforma legislativa dirigida a mejorar la respuesta de las instituciones frente a la violencia contra las mujeres. Como complemento a los talleres de diagnóstico participativo para la mejora de la Legislación Vasca Frente a la Violencia contra las mujeres y los diferentes grupos de trabajo del II Acuerdo Interinstitucional, se ha puesto a disposición de la ciudadanía una plataforma On line para ampliar la recogida de aportaciones. A estas aportaciones hay que añadir los*

prozesutik ateratako edukiak daude; prozesu hori Emakundek parte hartzen duen Nazio Batuen programaren esparruan gauzatu da. Ildo horretan, 2018an hiru jardunaldi monografiko egin ditugu poliziaren, gizarte-zerbitzuen eta osasunaren arloetan. Gainera, topaketa bat egin genuen instituzioen esparruko eta mugimendu feministako adituekin, beren iritzia eman dezaten bi galdera hauei buruz: zein dira erronka nagusiak emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko eta zein da legezko formularik egokiena.

*contenidos derivados del proceso de reflexión sobre los estándares de calidad de los servicios de atención a víctimas llevado a cabo en la Comunidad en el marco del programa conjunto de las Naciones Unidas en el que Emakunde participa. En este sentido, en 2018 se han celebrado tres jornadas monográficas en los ámbitos policial, de servicios sociales y sanidad. Además, se llevó a cabo un encuentro con expertas del ámbito institucional y del movimiento feminista para conocer su opinión sobre cuáles son los principales desafíos para hacer frente a la violencia contra las mujeres y cuál es la fórmula legislativa más adecuada.*